



LORTEK

MEMBER OF BASQUE RESEARCH
& TECHNOLOGY ALLIANCE

EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO LORTEK S.COOP. KONPROMISOA

LORTEK S.COOP. kooperatiban, emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko konpromiso esplizitua hartzen dugu gure gain eta horretarako gure lehen Berdintasun plana (2020-2023) barneratu dugu, betiere legediak ezartzen dituen jarraibideen arabera: Emakumeen eta Gizonen Berdintasun eragingarriko 3/2007 Lege Organikoa eta EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako 4/2005 Legea.

Horrela, Europako Batzordeak ezartzen duen Genero Berdintasunerako (2020-2025) Estrategiari eta Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuei gure ekarpena egiten diegu. Jarraibide horiez gain, kontuan hartu dugu Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako VII. Planean jasotakoa ere.

Ildo horretan, bai Zuzendaritzak bai Erakunde osoak, gure konpromisoa partekatzen dugu honako ardatz hauetan:

- Lidergoa eta Berdintasunerako Estrategiak.
- Berdintasuna pertsonen kudeaketan.
- Erantzukizuna eta eragina gizartean.

Hauek izango dira, eremu honetan, proiektuak eta ekintzak gauzatzeko jarduerak-ilduak:

- Berdintasun-planari eskainitako baliabideak ziurtatzea.
- Datuen bilketa eta jarraipena, sexuaren eta generoaren arabera. Eta adierazle horietan oinarritutako urteko txostenak sortzea.
- Genero-berdintasunari buruzko sentsibilizazioa eta prestakuntza.
- Helburu eta neurri zehatzak: egutegian zehaztuta eta arduradunek eta lantalde espezifikoei gidatuta, ikuspegiaren edo arloen arabera.
- Kontziliazioa eta erantzunkidetasuna.
- Pertsonen kudeaketa (berdintasun-irizpideak modu aktiboan ziurtatuz) eta talentua erakartzea.
- Ordainsari eta sustapen-berdintasuna (karrera profesionalean aurrera egitea) eta emakumeen eta gizonen arteko oreka erantzukizun-posizioetan eta erabakiak hartzean.
- Sexu-jazarpenaren eta sexu arrazoiengatikoko jazarpenaren aurkako prebentzio-neurriak.
- Genero-dimentsioa txertatzea ikerketa eta irakaskuntza edukietan.

Berdintasuneko barne-egitura indartzeko konpromiso irmoarekin ezarri dugu 2020-2023 Berdintasun plana LORTEK S.COOP. Kooperatiban eta era berean, kanpora begira ere erakunde eragilea izateko konpromiso irmoa dugu, berdintasuna benetakoa eta eraginkorra izango den gizarte baterantz aurrera egiten lagunduz.

Ordizian, 2021eko urriaren 8an

Izpta.
Jaione Ganzarain Epelde